

# UMEEI XAKEA NOLA IRAKATSI

TAKTIKA NOLA IRAKATSI .

## **Aspektu taktikoak**

Kontuan izango dugu irekieretatik amaierataraino, tarteko jokoa kontutan edukirik, xake jokoa funts taktikoa duela. Beraz lehen klaseetatik hasita gai taktikoen transmisioan, gainbegiraketan eta irakasketetan oinarrituko gara , bere funtsezko legeak irakatsiz, gero ikasleen kalkulu indarra gutxitu ez dadin ezagutza hauen gabezia dela eta.

## **Taktikaren legeak**

Taktikaren legeak honakoak dira:

- Piezak aurkarirenak eraso eta gureak babesten dituzte.
- Piezak balio oso bat eta balio erlatibo bat dute.
- Balioa berdina denean erasotzailea erasotua baina gehiago izan behar da.
- Eraso eta defentsan aldaketarik baleuke balio gutxieneko piezarekin erasotzea komeni da.
- Piezen balioa ez du garrantzirik eta matea lortzeko sakrifika daiteke.
- Balio gutxiagoko pieza baten erasoaren aurrean, balio handiagoko pieza ez daiteke era zuzenean defendatu.

## **Gai taktikoak**

Oinarrizko gai taktikoak honakoak dira:

- Eraso bikoitza.
- Iltzaketa.
- Ageriko jokaldia.
- Lerrokada.
- X izpiak.

Beste gai taktikoa batzuk:

- Desbideraketa
- Gainzama
- Erakarpina
- Tarteko jokaldia.
- Errege erdian.
- Defentsaren suntsiketa
- Blokatzea
- Tartean hartzea.
- Errota...

### **Erasorako Gaiak**

- Troyako Zaldia.
- Tren txoa.
- Defentsako zaldiaren kanporatzea.
- Baionetarekin eraso.
- Gutxiengoko eraso.

### **Oinarrizko mateak**

- Eskilararen Matea bi gazteluekin.
- Heriotzaren muxua errege eta damarekin.
- Txerrikumearen matea errege eta gazteluarekin.
- Matea bi alfilekin.
- Matea alfil eta Zaldiarekin.

### **Funtsezko mateak**

- Pasilloaren matea.
- Putzuaren matea endrokean alfil eta gaztelurekin.
- Arabiar matea zaldi eta gaztelurekin.
- Anastasia matea zaldi eta gaztelurekin.
- Ostikoaren matea.
- Guraizeen matea bi alfilekin.
- Beste mateak ikusi "Dibertimates" liburua, Nikola Lococorena.

### **Irekierako mateak.**

- Eroaren matea.
- Artzaiaren matea.

### **Irekierako zelatak.**

- Ehiztari ehizatua.
- Ikuiluaren matea Karo Kanean.
- Ilegalaren matea.
- Zelata liburuak ikusi, irekierako 200 zelata edo.

### **Taktika partidetan**

Taktika guztia gordinen eman dugunean, elementuak banaka landu ditugunean, orkesta baten moduan instrumentuak afinatzeko ordua iritsi da partidaren denak batera erabiliz. Orain irakasteko era honakoa izango da.

- Beren partidetan egiten dituzten akats taktikoak azalduz.
- Partida hilezkoak azalduz.
- Beren joko erasokor eta izaera ausarta izan zuten maisu handien partidak azalduz, "Keres" edo "Thal" bezalakoak.

## ESTRATEGIA NOLA IRAKATSI

Esan dugun moduan xakean hastapena taktikoa behar du, baina honek ez du esan behar hasieratik oinarrizko elementu estrategiko batzuk azaldu behar ez diranik, eta naiz eta hastapen ikastaroen materia formala ez izan, bai azalduko ditugula era errazean joko eta azalpenetan.

### Hastapenean estrategia

- Erdigunea hartzea.
- Erditik ateratzea.
- Piezak erditik eta erdirantz garatzea.
- Erregea babestu eta bere kokapena kontuan izatea.
- Piezak atrapatuak gera ez daitezen kontua izan
- Pieza bakar batekin ez jolasteak soilik hau aldatu edo harrapatua izan arte dama bezala.
- Zaldiak aldeetatik ez ateratzea, piezak erdiko peoien aurrean ez kokatzea, alfilak peoi potoloetan bihur ez daitezen kontuan izan, zaldia alfila ez oztopatzea...

### Estrategia aurreratua I

Jokoan erraz egiten dutenean hau da hirugarren urtetik aurrera....orduan elementu estrategikoak garrantzia hartzen dute. Elementu hauek oinarrizkoak dira.

- Piezen balio erlatiboa beren izaera eta zentralizazioarengatik.
- Gazteluak irekitako zutabetara eta zazpigarren lerrora. Zutabe eta zazpigarren lerroaren azalpena eta bere garrantzia, gazteluak bikoiztea.
- Alfilak diagonaletara. Diagonalaren indarraren eta fiantxetoaren azalpena. Alfil ona eta txarraren diferentzia aldaketak ematen direnean.
- Zaldiak zuloetara, karratu ahulen nozioa.
- Peoiak, bikoiztutakoak, bakartutakoak, atzeratutakoak eta ahulak.
- Endrokea, bere defentsa eta eraso. Alde bereko Endrokea eta kontrakoaren azalpena.

### Estrategia aurreratua II

Aurreko ezagutzak argi dituztenean bai teorian eta praktikan, gehiago sakontzeko ordua izango da eta estrategia sakonago bat lantzeko ordua izango da.

- Gazteluak. Zein joango den zutabera, errege aktiboa zutabea defendatzeko, nola mantendu zutabearen kontrola gaztelu aldaketetan.
- Alfil eta zaldien trukeak. Joko itxi edo irekietan noiz mantendu zaldia edo alfila.
- Peoiaren funtzioa aurkariaren lerroak apurtzerako orduan. Diagonal eta lerroen irekierak. Baionetarekin eraso. Gutxiengoaren eraso. Peoien erdiak, peoi kateak, peoi kateen oinarriak eta peoi irlak.
- Partida amaiera nola geratuko dan, joko erdian trukeak eta sinplifikazioak eman direnean, piezak eta peoi egiturak batipat.

## AMAIERAK NOLA IRAKATSI

Ez dugu azken arte itxarongo amaierak irakasteko, lehenengo gauza irakatsi behar dena da piezen mugimenduak ikasi dutenean, jokoak xake matearen nozioa behar du eta. Dena den xake matearengatik partida amaitzea eta partida amaieraren arteko diferentzia irakatsiko dugu. Matea bi gazteluekin eta matea damarekin aurreko biekin bat egiten du, eta horregatik hastapenean hasieratik irakatsiko ditugu. Baita ere hastapenean irakasgai sakonago batean, hastapenean, beste amaiera batzuen azalpena ematea komeni da, errege eta gazteluaren peoia erregeren aurka, errege eta peoi erregeren aurka edo amaieran sinplifikazioaren kontzeptua bezala.

### **Amaierak hastapena I**

- Eskilararen matea bi gazteluekin.
- Txerrikumearen matea, errege eta gaztelua erregeen aurka.
- Heriotzaren muxua, errege eta dama erregeren aurka, itoaren nozioa.
- Mate emateko abantaila gutxiegi duten amaierak eta berdinketak.

### **Amaierak hastapena II**

- Errege eta gazteluaren peoia erregeren aurka, karratuaren legea.
- Errege eta peoia erregeren aurka.
- Oposaketa eta zugzwang nozioa.
- Amaieran sinplifikazioaren azalpena.

Ikaslegoa aurrekoaren ezagutzak argi duenean posiblea da amaiera eta arau berrien azalpenetan sakontzea. Hau xakean bigarren edo hirugarren urteetan egin daiteke gezurra ba dirudien arren amaieren irakasketak azkorragoak izaten dira taktikan edo estrategian horrenbesteko energia eramaten gaituzten azalpenekin konparatuz gero. Aurrekoarekin loturik xakean maisu handiak direnak amaieren ikasketak xakearen lehen urteetan egitea gomendatzen dute, behin irakaslegoa prest denean gomendagarria da amaiera errazenekin ekitea komeni da gazteluen amaierak eta beren oinarrizko arauak, gero peoi amaierak gutxienez errege eta bi peoi errege eta peoiaren aurka, gero alfil eta zaldia peoien aurka eta alfil zaldien aurka eta azkenik aurreratuan dama bi gazteluen aurka eta dama errege eta beste pieza baten aurka. Ezagutza guztiak liburuetan daude, pixka bat landu eta lau gauza garbitzearekin nahikoa da. 10 urteko umeekin eta denbora nahikoa emanez ez lukete arazorik oinarrizko ezagutzak ikasi eta praktikan jartzeko izango.

## Amaierak aurreratua I

- Peoi amaierak
  - Amaierari begira gazteluaren, zaldiaren, alfilaren eta erdiko peoien arteko diferentziak.
  - Oposizioa, hiru karratuen eta triangulazioaren gaiekin zabaldua.
  - Errege eta peoi erregeren aurka, alde sendoa peoia bostgarrenean eta seigarrenean daudenean.
  - Errege eta bi peoi erregeren aurka zutabe banandu eta gertuetan, taularen geometria eta erregeren mugimendu diagonalak.
- Gaztelu amaierak
  - Gaztelu amaieren oinarrizko arauak. Gazteluaren lana atzetik, aldetik eta goitik, hiru karratuen araua, alde motza eta alde luzea...
  - Morphyren amaiera. Seigarren lerroan itxarotea. Ihes egiteko karratuaren nozioa.
  - Luzenaren amaiera. Zubiaren teknika.
  - Errege eta gazteluaren peoiaren kasu guztiak
- Alfil eta zaldien amaierak
  - Alfil eta zaldien ahultasun eta sendotasunak.
  - Alfil eta zaldien blokatzeak.
  - Alfila peoi katearen atzetik.
  - Alfil eta zaldien nozioa piezen berezitasunak direla eta. Alfila bi aldeetan defendatzen du, zaldia bi koloreetan erasotzen du, alfila irismen handiagoa du eta bere defentsan erasotua izatea ekiditeen du, zaldia alfila erasotzen du beti, baina alfila ezin du beti zaldia erasotu, alfila eta peoia elkar defendi daitezke...
- Damen amaierak gaztelu eta beste pieza txikien aurka.
  - Peoi egituraren arabera, dama eta bi gazteluen arteko oinarrizko arauak.
  - Dama errege peoi eta pieza txikien aurka, bunkerraren nozioa.

## IRIKIERAK NOLA IRAKATSI

Argi danez irakaslekoari taktika, taktika eta taktika irakatsi behar bazaie, irekierak irakasteko ordua denean hauxe da irakatsiko dugun elementua. Dena den ez da komeni irekierak irakastea beste ezagutza hauek azaldu aurretik.

### Irekieren printzipioak

- Erdigunea, peiekin hau kontrolatzea.
- Garapena, piezak ateratzea, zaldiak, alfilak. Era armonikoan.
- Espazioa, ahalik eta espazio gehiago kontrolatzea.
- Denbora, pieza berdina mugituz ez galtzea.

### Estrategiaren oinarritzko ezagutzak

- Piezen zentralizazioa.
- Erregearen posizioa.
- Zutabe eta diagonalak gaztelu eta alfilentzat.
- Zaldientzako "Hole" edo zuloak.

### Taktikan erretasuna

- Gutxienik dozena bat gai taktikoen ezagutza.
- Matea bitan ebazteko gaitasuna.
- Sakrifizioak egiteko gaitasuna.

Irakas legoa zortzi urterekin xakean hasi bada, 11 urterekin irekieretan hasteko prest egongo da, eta ez irekiera bakar batean soilik. Ez dago esan beharrik aurretik edo beranduago hasi bada denbora gutxiago beharko duela honetan hasteko.

### Irekierak aurreratua I

Aurreko guztia kontuan izanik, irakatsiko ditugun lehen irekierak joko irekia, taktikoa eta konbinaziokoa bilatzen dutenak izango dira. Beste era batera esanda erregearen peiko irekierak eta ganbitoak zeintzu planei dagokienez txikiak direnak eta konbinazio zuhaitzean zabalak direnak. Irekiera hauen helburua partidaren hasieraren zentzu historikoan, teorikoan, eta praktikoan aplikatuko dira eta ez buruz jokatzean, era ortodoxoan edo esan daiteke era egokian", baizik beste jokalarien esperientziaz baliatuz ikasteko eta ez taulan jokatuz eta beren akatsetatik ikasiz. Irekieren mundua aspektu taktiko eta konbinaziokotik azalduko da baina aukera izango dugu ere atzetik dauden ideia, plan eta estrategiak irakasteko, eta hauxe da egin behar dena hain zuzen ere irekierak irakasteko ordua iristen denean. Gainera irekieren mundua lerro zorrotzetan sakondu eta testuetan agertzen ez derenentzako laborategia izan daiteke, beren gaitasun taktiko konbi natiboa sendotzeko orduan.

## **Laburpena**

- Gutxienik jokoan urte bateko esperientzia duten ikasleentzat.
- Besteen esperientziaz baliatzeko erabiliko dira irekierak, hauetaz probestu daitezten.
- Lehen irekierak joko ireki eta taktiko konbinatiboa bultzatzen duten lerroak izango dira.
- Irekierak ideia, plan eta estrategiak irakasteko erabiliko dira.
- Irekierak alde taktikoa sendotzeko bidea izango da.
- Errege irekierak.
- Ganbitoak.

## **Irekierak aurreratua II**

Ikasleak taktikan erretasuna dutenean eta zuzenean eraso edo defendatzeko ezer ez dagoenean, matea bitan edo pieza askeen moduan, posizio hauek jokatzen ikasteko ordua iritsiko da. Orain jokalaria bezala aberasteko beste estrategia sakonagoak eta beste irekiera mota batzuk ikasiko ditugu. Irekiera berriak besteak bezala irakatsiko dira, baina estrategia handian zutabeak, diagonalak edo erdigunea bezalako kontzeptuak eta joko lerro ezberdinak dutenak dituztenak ikasiko ditugu, Frantziarra, siziliarra, eskandinaviarra, Vienarra, erregeren indiar eraso... bezalakoak.